



UGTk ez du Osasun Ituna sinatuko, eta deitoratu du sistema publikoa indartzeko aukera galdu dela

Sindikatuak 24 lan-ildoetatik 22 babestu ditu, baina onartezina deritzo interes pribatuen aldeko apustuari, gainerakoa baldintzatuz

Bilbon, 2025eko ekainaren 27an

UGTk ez du sinatuko Osasunaren Euskal Ituna, "azken testuak hasierako helburua betetzen ez duela" egiaztatu ondoren. Ekimenaren oinarrietan zein diagnostikoan jasota zegoen "EAEko osasun sistema publikoa indartu, bere autosufizientzia areagotu eta sektore pribatuarekiko mendekotasuna murrizteko" asmoa. Arantza Agote sindikatuaren Zerbitzu Publikoen Federazioko idazkari nagusiak jakinarazi du erabakia, eta balioan jarri nahi izan du UGTtik "erantzukizunez eta konpromisoz" lan egin dutela, "itunaren 24 ildoetan proposamenak eginez".

Izan ere, UGT-Zerbitzu Publikoetako arduradunak azaldu duenez, lanean eman dituzten hamar hilabeteetan jorratutako 24 ildoetatik 22 onartzen dituzte, "guztiarekin guztiz ados egon ez arren, adostasuna bilatu aldera". Baina "lankidetzaren publiko-pribatuari eta hitzarmen-araubideari" dagokiona "gainerako edukiak baldintzatzen dituen zeharkako lerroa da, guretzat onartezina".

Osasun publiko, unibertsal eta kalitatezkoaren defentsa sutsuarekin bat etorriz, "UGTk ez du sinatuko bere bokazioa indargabetzen duen itun bat, arlo publikoa blindatzen ez duena eta sistemaren benetako beharrei erantzuten ez diona". Osasun Sailak horretan guztian konpromiso zehatzak saihestu dituela deitoratu du Agotek, eta ondorioz, "aukera bat galdetu da".

UGTk ere uko egin dio "zerbitzu-zorroari" dagokion ildo sinatzeari, hori ere zeharkakoa dela uste duelako, eta, gainera, zerbitzuak barneratzeko eta argitaratzeko benetako konpromisoaren mende dagoelako, "itunak jasotzen ez duena, jakina".

Agotek bere sindikatuaren prestutasuna bermatu du "osasungintza hobea lortzeko, euskal herritarrek merezi eta nahi duten zerbitzura", baina, aldi berean, etorkizuneko edozein erreforma edo estrategia "adostasunean, ekitatean eta gardentasunean" oinarritzea eskatu du.